

BATX2 IKT II PROGRAMAZIO LABURPENA

Irakaslea	Mikel Maza	Maila	Batx.2	Ikasturtea	2021-2022
-----------	------------	-------	--------	------------	-----------

IKASGAIAREN EZAUGARRIAK MAILA HONETAN

Covid19 dela eta bizi dugun egoera aldakor honetan, Hezkuntza Departamentuak lan egiteko lau egoera ezberdin antzeman ditu. Lauak [Kontingentzia Plana](#) izena daraman dokumentuan azaltzen dira.

Lehenengo bi egoeretan, aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Hirugarren egoeran, erdiz aurrez aurreko irakaskuntza bermatuko da.

Laugarren egoera, aurrez aurreko irakaskuntza ez da egongo, eta etxetik lan egin beharko da.

Lehenengo bi egoerak gure ikasgaiari dagokionez, ez du desberdintasunik eta eskutan duzun testu honen arabera lan egingo dugu.

Hirugarren zein laugarren egoeretan sartzen bagara, abian jarriko da ikastetxeko [Arreta ez-Presentzialaren Plana](#).

Hautazko ikasgaia da. Astero 4 saio dituena. Proiektu, ikerketa eta talde lanari garrantzi handia ematen diona.

OINARRIZKO GAITASUNAK

UNITATEAK

1) Hizkuntza komunikazioa.	1	2			5	6				
2) Matematika gaitasuna eta zientzia eta teknologiko oinarrizko gaitasunak.		2	3	4	5	6				
3) Gaitasun digitala.		2	3	4	5	6				
4) Ikasten ikastea		2		4	5					
5) Gaitasun sozial eta zibikoak.	1		3	4	5					
6) Ekimena eta ekintzailtza.				4	5					
7) Kontzientzia eta adierazpen kulturalak.	1	2			5	6				

ETAPAKO HELBURU OROKORRAK

Batxilergoa: <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2015/127/1>

EDUKIAK

[IKT II CURRICULUMA](#)

1. Informazioaren eta teknologia berrien gizartea.
2. Programaziorako eta prozesuen kontrolerako lengoaiak.
3. Informazioa argitaratzeko prozesu eta baliabideak.
4. Segurtasuna baliabide informatikoetan eta sare informatikoetan.

EBALUAZIO IRIZPIDEAK eta ESTANDAR EBALUAGARRIAK

[IKT II CURRICULUMA](#)

UNITATEAK ETA DENBORALIZAZIOA

1. Ebaluazioa		2. Ebaluazioa		3. Ebaluazioa	
Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak	Orduak	Unitateak
1	1. Aurkezpena	24	4. Programazioan sakontzen	35	6. Segurtasun informatikoa
5	2. Informazioaren Gizartea. Teknologia berriak	15	5. Proiektua: Web orri baten diseinua		
29	3. Programazioa				

METODOLOGIA ETA BALIABIDEAK**Metodologia.**

Ikasleek aktiboki jokatuko dute klaseak aurrera eramateko, ikaslea bere ikaskuntza prozesuaren protagonista izanen da. Talde lanean eginiko proiektuei garrantzia handia emanen zaio.

- Gehiengoetan ariketa eta proiektuen bidez landuko dira gaiak. Proiektu hauetan zenbait gai elkartuko dira.
- Baliteke gai teorikoak landu ondoren galdeketa idatziak egitea gaiari buruz.
- Programa / Aplikazioak:
 - Ofimatika: Internetek baliabideak. Interneta (nabigatzaileak, bilatzaileak eta korreo elektronikoa).
 - Programazioa lantzeko programak, web edizioa programak, babes-programak (antibirusa, antispam..)

Baliabideak.

Arloa garatzeko irakasleak emandako apunteak erabiliko dira, bestetik arloaren garapena laguntzeko Google aplikazioak erabiliko dira. Horiez gain informatika gelako baliabideak erabiliko dira.

EBALUAZIOA ETA ERREKUPERAZIOA**KALIFIKAZIO SISTEMA eta TRESNAK**

Ebaluatzeko orduan tresna hauek erabiliko dira eta kalifikatzeko portzentajeak ondorengoak izanen dira:

- Egindako **ariketak / lanak / proiektuak / frogak: %80**

- Lanerako **jarrera: %20**

Errubrika bidez kalifikatuko da eta aspektu hauek izango ditu:

- Klasearen hasiera.
- Covid-19 neurriak.
- Materiala.
- Etxeko lana.
- Klaseko lana.
- Tailerreko eta gelako arauak.
- Errespetua.
- Euskararen erabilera.

ZUZENKETA IRIZPIDEAK ETA GUTXIENEOAK

Zuzenketa irizpideak.

Ebaluazioko nota jartzeko, borobiltze matematiko arrunta erabiliko da:

- Lehen hamartarra 1, 2, 3 edo 4 bada: unitatea bere horretan mantentzen da.
- Lehen hamartarra 5, 6, 7, 8 edo 9 bada: unitateari 1 gehitzen zaio. Arau hau ez da aplikatuko 4,5 - 5 tartean, hau da, gainditzeko baldintza 5era iristea da.

Ikasturte bukaerako nota kalkulatzeko, ebaluazio bakoitzeko borobildu gabeko notarekin kalkulatu da, eta ondoren aurreko borobiltze irizpidea erabiliko da.

Azken nota: IKT II ikasgaia gainditzeko, hiru ebaluazioetako noten batezbestekoan 5 edo handiagoa den kalifikazioa lortu beharko da.

Azterketetan kontzeptu teoriko eta hiztegi tekniko ezagutzen den baloratuko da.

Ariketa eta proiektuen bitartez, informatika tresnen erabilera maila baloratuko da.

IKT II arloan ez da ematen nota hobetzeko aukerarik.

Saioen %20 edo gehiago huts egiten bada, ebaluazio jarraia eskubidea galduko da.

Gutxieneoak:

- Lengoaia informatikoak: Arazoen ebazpena algoritmo eta fluxu diagramaren bitartez isladatzen jakitea. Ondoren programazio lengoai batera itzuli eta emaitza aztertzea.
- Edukiak argitaratu eta zabaldu: Web orriak diseinatzen jakitea, blog, wiki zer diren eta zertarako diren jakitea. Web 2.0-en oinarriak eta ezaugarri nagusiak jakitea.
- Segurtasuna: Informazio teknologi munduan dauden arriskuak eta segurtasuna bermatzeko dauden baliabideak ezagutzea.
- Talde lanean modu sistematiko eta ordenatuan aritzea.
- Ikerketa prozesuan trebatzea.

ERREKUPERAZIO SISTEMA

Ebaluazio batean suspentsoa bada, suspenditutako unitateak berreskuratu behar dira, hurrengo ebaluazioaren lehenengo egunetan, data adostuta. Behin berreskuratua, nota beheko taulan agertzen den moduan finkatuko da.

Ohiko deialdian, gainditu gabeko ebaluazioak berreskuratu behar dira. Berreskurapena suspentsoaren arabera izanen da, pertsonalizatua. Behin berreskuratuta, beheko taulan agertzen den moduan, lortutako nota berri honekin (hauekin) hiru ebaluazioen noten batezbestekoa eginez, kalkulatu da azken nota.

Ez Ohiko deialdian, ikasleren batek hiru ebaluazioen batezbestekoan ez badu 5 edo gehiago lortzen, suspendituriko ebaluazioak berreskuratu beharko ditu. Berreskurapena suspentsoaren arabera izanen da, pertsonalizatua. Behin berreskuratuta, beheko taulan agertzen den moduan, lortutako nota berri honekin (hauekin) hiru ebaluazioen noten batezbestekoa eginez, kalkulatu da azken nota.

Berreskurapenaren emaitza	Azken emaitza
8.5 - 10	7
7 - 8.5	6
5 - 7	5
0 - 5	Berreskurapenaren emaitza borobildua (4 eta 5 artean, 4)

AURREKO IKASTURTEKO IKT I GAINDITZEKO SISTEMA:

IKT I pendienteak programazioan biltzen da. Arloa duten ikasleei pendienteen plana banatu zaie.

KANPOKO EBALUAZIOA

IKT II irakasgaiak ez da kanpoko ebaluaziorik egiten.

OHARRA: Hau guztia hasierako plangintza da, malgutasunez jarraituko dena. Ikasturtean zehar ikusten bada komeni dela zerbait aldatzea, zilegi litzateke.

Iruñea, 2021ko iraila